

PROIEKTUEN KUDEAKETAN ADITU IKASTAROA

GAIA	Proiektuen Zuzendaritza eta Kudeaketa	Informazio gehiago eta izen-ematea
ECTS/ORDUAK	300 ORDU	
EGUTEGIA	2022/10/17 - 2023/07/14 As-At-Az-Og-Or	
TOKIA	HIZKUNTZA Ingelera	
MODALITATEA	Online	

AURKEZPENA

Online proiektuak kudeatzeko ikastaro honek eskaintzen du proiektuen negozio helburuak lortzen direla ziurtatzeko aukera ematen duten metodo, praktika eta tresnen ikuspegi zabala.



NABARMENTZEN DOGU

- ✓ Zure proiektuaren emaitzak hobetuko dituzu
- ✓ Zure bezeroen gogobetetzea hobetuko duzu
- ✓ Benetan garrantzitsua dena landuko duzu, eta zure agendaren kontrola berreskuratuko duzu
- ✓ Zure ekipoaren saturazioa ezabatuko duzu

HELBURUAK

Zure proiektuan nahi dituzun emaitzak ez lortzeaz nekatuta? Marjina jaten duzu? Epeak ez dituzu betetzen?

Multitarea asko dituen ekipo saturatu bat duzu?

Larrialdiak kudeatzen ematen duzu eguna, eta garrantzitsuenean lan egiten ez duzula sentitzen duzu?

Proiektuetan gertatzen diren aldaketa kopuruak gainezka egiten dituzu?

Online proiektuen kudeaketari buruzko ikastaroarekin:

- Zure proiektuaren emaitzak hobetuko dituzu
- Zure bezeroen gogobetetzea hobetuko duzu
- Zure ekipoaren saturazioa ezabatuko duzu
- Benetan garrantzitsua dena landuko duzu eta zure agendaren kontrola berreskuratuko duzu
- Bezeroen edo enpresaren beraren zehaztapenen edo lehentasunen aldaketak arin kudeatuko dituzu.

Hori guztia, honako prestakuntza ikastaro honen bidez:

- Proiektuak kudeatzeko metodologia zabal eta erreferenteetan prestatzen zaitu
- Edukia zuk uste duzunean aztertzeke aukera ematen dizu, malgutasun osoz
- Zure enpresaren kasuari aplikatutako proiektu bat garatzen du
- Titulazio goreneko irakasleak ditu, esperientzia handikoak

Prestakuntza honetako moduluak egin ondoren,

- Proiektuak kudeatzeko **askotariko** ikuspegiaren abantailak ezagutuko dituzu, baita horien aplikazio eremuak ere.
- **Proiektuak kudeatzeko askotariko** metodoen teknika eta tresnak ezagutuko dituzu.
- Proiektuen kudeaketa aurreikusteko faseak eta horien teknikak eta tresnak ezagutuko dituzu.
- Proiektuen kudeaketa bizkorraren ikuspegiak eta Scrum **eta** Kanban metodoen printzipioak eta praktikak ezagutuko dituzu.
- Proiektuetako arriskuen **identifikazioaren, analisiaren, ebaluazioaren, erantzunaren** eta jarraipenaren funtsezko prozesuak ezagutuko dituzu.
- **Proiektu anitzeko inguruneen** problematika ezagutuko duzu, egoeraren diagnostikoak egingo dituzu eta ingurune horiek modu eraginkorrean hobetzeko gakoak emango dituzu, antolamenduaren ikuspegitik irtenbide egingarriak emanez.
- **Proiektuak kudeatzeko** mugen teoriaren (TOC) ikuspegia ezagutuko duzu: Kate Kritikoaren Metodoa ("Critical Chain"), mono kudeaketa eta proiektu anitzeko kudeaketarako.
- Proiektuen zorroa identifikatzeko, kategorizatzeke, ebaluatzeke, hautatzeko, lehenesteko eta orekatzeke faktore kritikoei buruzko ikuspegi orokorra izango duzu.
- Ikastaroan **aztertutako teknikak eta tresnak ingurune erreal** bati aplikatzeko gai den Seráz.

NORI ZUZENDUA

Ikastaro hau proiektuen kudeaketaren oinarriko ikuspegi eta praktika askotarikoak ikasi nahi dituzten pertsona guztiei zuzenduta dago.

Hau nahi duten profesionaleri:

- Bere proiektuen negozioaren emaitzak hobetzea

- Bere erakundearen proiektuak kudeatzeko praktikak hobetzea
- Pertsonen inplikazioa hobetzea eta taldeak indartzea

Honen bila ari diren pertsonen:

- Proiektuen kudeaketan dituen eskumenak hobetzea
- Enpresako lanpostua hobetzea edo berri bat aurkitzea

PROGRAMA

Modulu bakoitza modu independentean ere egin daiteke, gainerakoak egin beharrik gabe. Modulu bakoitzaren informazioa zabaltzeko, egin klik moduluaren izenburuan.

1. modulua: Classical project management (75h)

Proiektu baten faseen kudeaketa
Arriskuen kudeaketa proiektuetan

2. modulua: Agile project management (60h)

Scrum metodoa
Kanban metodoa

3. modulua: Advanced project management (80h)

Proiektu anitzeko inguruneen kudeaketa
Proiektuen zorroaren kudeaketa
Proiektuen kudeaketa kate kritikoarekin

4. modulua: Ikastaro amaierako proiektua (85 h)

Hiru prestakuntza moduluak bukatutakoan, azken proiektu bat egingen da, kasu erreal batean metodo, praktika edo tresna garrantzitsuenak aplikatzeko.

METODOLOGIA

Ikasleek modulu bakoitzeko jarduerak ikasteko eta egiteko erabateko malgutasuna izan dezaten pentsatuta dago ikastaroa, horietako bakoitzerako ezarritako epeetan.

Ez da eskola programaturik izanen. Ikasleak erabakiko du noiz ikasi eta egingen dituen jarduerak.

Horretarako, on line plataforma bat dago, material guztia eskuragarri izango duena, eta ikasleak berak egingo du aurrera bere erritmoan, modulu bakoitzeko irakasleek gidatuta.

Irakasleak ikasleen eskura egonen dira beti. Komunikatzeko bide nagusia irakaslegoarekin eta ikaskideekin komunikatzeko uneoro egongo den foroa izango da. Gainera, noizean behin, irakasleen ekimenez edo ikasleen eskariz, saio sinkronoak egiten ahalko dira, gaiak sakontzeko edo zalantzak argitzeko. Saio sinkrono horiek grabatu eta ikasleen eskura utziko dira online plataforman.

Prestakuntza, nagusiki, bakarka egiten da. Hala ere, ikasturtean zehar zenbait jarduera egin ahalko dira taldeka, gainerako parte-hartzaileekin elkarreraginean aritzeko.

LEKUKOTZAK

“Orain dela 3 urte, nire eginkizunak aldatu eta proiektuak gauzatzeari buruzko erantzukizuna izaten hasi nintzen”.

“Prestakuntza interesgarria iruditu zitzaidan, proiektu baten kudeaketa klasikotik proiektu anitzeko kudeaketara abiatzen zelako, eta, gainera, kudeaketa arineko zenbait metodo ukitzen baitzituen”.

“Aztertu beharreko gaietarako buruzko ideia batzuk ematen dizkit, gauzak egiteko moduan aldaketa batzuk egin ditzakegun ikusteko”.

(Sonia - Zuz. Proiektuen&Zerbitzuen Arloa – ARTECHE)

“Nire bizitza profesionalean prestakuntza teknikoa jaso dut, eta zeharkako gaien pilula batzuk ematen ditut. Ardura gehiago eman dizkidaten heinean, horrelako prestakuntza jaso beharra ikusten dut.”

“Zalantzarik gabe, ikastaro hau gomendatuko zenieke beren proiektuen kudeaketa hobetu behar dutela uste dutenei”.

(Jesus, EEEko Energia Berriztagarrietako teknikaria)

PRAKTIKAK ETA PROIEKTUA

Ikastaroa bukatutakoan, ikasleek gutxienez 85 orduko proiektu bat garatu beharko dute. Proiektu horretan, ikastaroan ikusitako metodo / praktika / teknika / tresna batzuk ezarriko dira, proiektuen kudeaketa hobetzeko eta ikasturtean zehar garatutako ezagutzak barneratzen direla ziurtatzeko.

Zehazki, helburu hauek ditu:

- Ikastaro honetan aztertutako proiektuak kudeatzeko metodo edo tresnak ezagutzea, eta parte-hartzailearen beraren enpresaren jarduteko moduetan egokienak ezartzea.
- Proiektuak kudeatzeko prozesu bat diseinatu eta garatzea, partaidearen enpresaren proiektuaren emaitzak hobetzeko metodo, tresna eta / edo praktika egokiak erabiliz.

PREZIOA

2.700 €

INFORMAZIO GEHIAGO

Zalantzarik edo informazio zehatzagorik nahi izanez gero, jarri harremanetan Javier Guallar ikastaroko koordinatzailearekin (jguallar@mondragon.edu).

Gainera, hala eskatzen dizutenei, doan emango dizue proiektuen kudeaketari buruzko lehen sarrera-pilula (bideo-formatuan).

